

ZURE SEMEAK EDO ALABAK ZUREKIN HORRELAKORIK EGITEN DU?

- iraintzen zaitu
- barregarri utzi edo umiliatzen zaitu
- dirua lapurtzen dizu
- xantaia egiten dizu nahi duena lortzeko
- haserrealdietan zure objektu pertsonalak edo etxeko gauzak apurtzen ditu
- bultzatzen zaitu edo indar egiten du zure kontra
- mehatxu egiten dizu.
- zerbaitekin jo zaitu edo objekturen bat bota dizu
- ukabilkada edo ostikada bat eman dizu



GURASOEN AURKAKO INDARKERIA: ZER DA ETA NOLA AURRE EGIN BEHAR ZAIO?

OHIKO ARAZOA

Goian aipatutakoak seme-alabek gurasoen aurka egiten dituzten erasoen adibideak dira. Pertsona gehienek uste duten baino sarriago gertatzen dira Gurasoen aurkako indarkeria irainekin, gaitzespenekin edo lapurreta txikiekin has daitezke, eta apurka-apurka jokabide larriagoak gerta daitezke, esaterako, eraso fisikoak. Eraso fisikoak ohikoagoak eta larriagoak bihur daitezke.

Maila sozioekonomiko guztietan gertatzen da. Gehienetan amak izaten dira biktimak, baina aitak, aitonak eta amonak ere izan daitezke, bai eta euren kargupean seme-alaben zaintza duten beste senide batzuk ere.

EZKUTUKO ARAZOA

Guraso askori kostatzen zaie aitortzea semearen edo alabaren indarkeriaren biktima direla: «**Zaila da aitortzea nire semeak edo alabak eraso egiten didala**». Hori dela eta, guraso asko seme-alaben erasoak **minimizatu** eta garrantzia kentzen saiatzen dira, batez ere, erasoak irainak eta umiliazioak direnean. Gurasoek nerabezaroaren ohiko gauzak direla eta berez pasako direla uste dute. Gainera, jendeak gertaera horien berri daukanean, aita eta ama batzuen beldurra izaten da jendeak kritikatuko dituela, eta euren jokabidea guraso gisa zalantzan jarriko dutela: «Aita edo ama gisa **huts egin dut eta horregatik gertatzen zait hau guztia**». Kritiken beldurra eta seme-alabak babesteko nahia direla-eta, gurasoek arazoa ezkutuan mantentzen dute.

ONDORIO LARRIAK

Hala ere, seme-alaben erasoek kalte handia eragin diezaiekete biktimei eta familiaren bizikidetzara ere nabarmen hondatzen dute. Guraso asko, seme-alaben erasoen ondorioz, etsita eta babesik gabe sentitzen dira eta antsietatea eta arazo psikologikoak izaten dituzte. Gurasoek arazoari aurre egiteko moduari buruz eztabaidatzen dute, eta dena eskuetatik joaten zaiela konturatzen dira. Indarkeria erabiltzen duten seme-alabak ere txarto sentitzen dira eta gero eta arazo larriagoen zurrumbilo batean sar daitezke. Oro har, **familiako kide guztiek sufritzen dute**. Horregatik, gurasoen aurkako indarkeria gertatzen denean funtsezkoa da laguntza eskatzea.

NOIZ ESKATU BEHAR DA LAGUNTZA?

Oso garrantzitsua da bereiztea, batetik, gurasoen aurkako indarkeria, eta bestetik, nerabezaroaren une batzuetan seme-alaba askok arauen aurka izaten dituzten frustrazio jokabideak. Gurasoen aurkako indarkeria EZ da nerabezaroaren berezko jokabidea Indarkeria mota horren ondorioz ahozko erasoak (irainak, umiliazioak, mehatxuak) eta ez ahozkoak (kolpeak, borroka, objektuak edo aitzariak apurtzea) gertatzen dira behin eta berriz, eta biktimei sufrimendu handia eragiten diete. Jokabide horiek onartezinak dira.

Aitak edo amak ikusten badu **ezin dezakeela** semearen edo alabaren jokabidea **kontrolatu**, indarkeriaren edo eraso fisikoen beldur bada, eta behin eta berriz iraintzeagatik **guztiz umiliatuta** sentitzen bada, laguntza eskatzeko garaia heldu da. Egoera hori dela-eta erabat gainezka eginda bazaude, laguntza eskatzeko garaia heldu da.

NOLA ESKATU AHAL DUT LAGUNTZA?

Egoera honekin identifikatzen bazara, zerbait egiteko unea da Laguntza bilatu Gure profesionalak zure semearen edo alabaren nahiz familia osoaren balorazioa egin ahal dute eta zuen arazoa konpontzen lagunduko dizuete.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak badu familia barruko esku-hartze programa bat, gurasoen aurkako indarkerian espezializatuta. Programa horretan hainbat esku-hartze mota erabiltzen dira, gizarte eta hezkuntza arlokoak zein psikoterapeutikoak, eta maila indibidualean eta familian.

NORK HAR DEZAKE PARTE PROGRAMA HORRETAN?

Bizkaian bizi diren familiek, 10 eta 21 urte bitarteko seme-alabak badituzte eta seme-alaba horiek gurasoen aurka indarkeria erabiltzen badute.

NOLA JAR NAITEKE HARREMANETAN PROGRAMAREKIN?

Eskabidea zure udalerriko gizarte zerbitzuetan aurkeztu ahal duzu, edo zuzenean Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuan.

EMAKUMEAK BABESTEKO ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA:
946083581 - 944066266
www.bizkaia.eus



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GURASOEN AURKAKO INDARKERIA: ZER DA ETA NOLA AURRE EGIN BEHAR ZAIO?

